PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

Antxoritzeko Hobia

Antxoritzeko Hobia
Esteribarko Haranean dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Esteribarko Harana non dagoen ikus
dezakezu.

Antxoritz Ilurdoz errekatik gertu dagoen
hobi bat da.

Uste dute bertan aurkitu ziren gorpuzkiak
frankistek Iruñeako Espetxe Probintzialetik
edo San Kristobal espetxetik
atera zituzten presoenak direla.

Uste dute 1936ko uda edo udazkenean
Esteribarko Haranera eraman zituztela
bertan hil eta lurperatzeko.

Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarteak
informazio asko bildu zuen
eta horregatik 2012ko azaroan
gorpuzkiak berreskuratzeko
desobiratze bat egin ahal izan zuten.

Aurkitu zituzten gorpuzkiek
eskuak elkarrekin zituzten.
Horregatik uste dute
hil zituztenean eskuak loturik zituztela.

Desobiratze hau
Nafarroako Gobernuko DNA Bankua
sortu baino lehen egin zuten.
Ezin izan zenez jakin
zeinenak ziren aurkitutako gorpuzkiak
Iruñeako Hilerriko panteoian lurperatu zituzten berriz.
Panteoi hau pertsona nor diren ez dakiten pertsonak
lurperatzen diren monumentu bat da.

Hemen hobia aurkitu zuten lekuaren
argazki bat ikus dezakezu:

